

GIG 21

ITZURUNTXIKIKO IKNOFOSILAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Itzuruntxikiko segida eozenoan, Geoparkeko iknofosil-azaleramendurik garrantzitsuenetako batzuk daude. Segida Getariaraino jarraitzen duen Jaizkibel formazio ezagunaren parte da. Nazioarteko lan ugari burutu dira formazioaren zati honetan, eta azaleramendua hondo sakonen iknopaleontologia aztertzeko munduko azaleramendurik garrantzitsuenetako bat da.

Geoparkeak formazioaren oineko zatia baino ez du barne hartzen, baina 150 metro besterik ez dituen azaleramenduan, iknofosil asko eta asko identifikatu dira; esate baterako, *Taphrhelminthopsis*, *Glokerichnus*, itsas trikuen aztarnak eta *Subphyllochora*.

Estratu jakin baten oinazpian *Scolicia* aztarna asko daude, besteetan baino askoz gehiago, eta horregatik, Geoparkeko iknofosil-azaleramendurik ikusgarriena dela esan daiteke. Aztarna horietako batzuek betekina dute oraindik ere, eta beraz, horri esker, aztarna bakoitzaren morfologia azter daiteke konduktuaren beraren oinean eta gainean. Eredu honetan bertan, literatura zientifikokoan egun arte deskribaturiko *Saerichnites abruptus* handiena berreskuratuta da duela gutxi. Ale hori ikusgai dago Zumaiaiko Algorri Interpretazio Zentroan.

NOLA BERTARATU

Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidean behera jaitsi behar da lehenbizi, eta gero, handik Itzuruntxikira igaro. Ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Algorri Zentroa.



Scolicia aztarna ugariak.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560084 m / Y= 4794612 m / Alt.= 3 m



Azaleramenduan berreskuratutako *Saerichnites abruptus*-aren ikuspegi orokorra.